Egunkaria

euskaldunon

• igandea • 1999ko azaroaren 28a -- X. urtea -- 2.786. zenbakia -- Salneurria: 150 pta. 6 libera

Joxe Azurmendi

'Euskal Herria krisian'

saiakera liburuaren aurrerapena → 50

UUPk sustengua eman dio Ipar Irlandarako bake akordioari

Unionistek behin-behinean onartu dute azken hitzarmena, IRAren desarmearen zain

DAVID TRIMBLE unionistak bere alderdi UUPko batzarkideen %58 konbentzitu zituen Ipar Irlandarako baketzerako azken akordioa onar zezaten, eta, hala, bihartik aurrera lanean hasiko dira Gobernu eta Asanblea autonomoak. Sinn Fein errepublikanoa ere Gobernuan sartuko da. UUPk, dena den, otsaila arteko sustengua eman dio akordioari, orduan beste batzar bat egingo baitu. Ordurako IRA armak ematen hastea ezinbestekoa izango da unionistek behin betiko sustengua emateko. • 26

Elkartasun Martxa

Txema Fernandez / Efe

Milaka lagun Gizarte Eskubideen Agiriaren alde

BILBOKO udaletxearen aurrean amaitu zen atzo Gizarte Eskubideen Agiriaren aldeko manifestazio nazionala. Milaka lagun bildu zituen manifestazioak, Gizarte Eskubideen Agiriaren aldeko Plataformak deituta. Pozik zeuden antolatzaileak, gizartean langabezia eta probreziaren eztabaida piztu dutelakoan. Plataformako ordezkari Pako Aranburuk jendeak emandako sustengua nabarmendu zuen: «Euskal Herrian elkartasuna dagoela erakutsi du jendearen erantzunak».

• 20-21

Elkarrizketa



Ramon Saizarbitoria

• 'ABERRIAREN ALDE (ETA KONTRA)' LIBURUAREN EGILEA •

«Gero eta larriagoa iruditzen zait hizkuntza eta kulturari buruzko eztabaidarik eza»

• 42-43

politika

«Prozesua tinkotzeko», Espainiako bozetan parte hartzera deituko du EAJk • 7

gizartea

Xabier Isasi hautatu dute UEUko zuzendari • 13

PP «'non grato'» izendatu du EHEk Gasteizen • 15

Intsumiso bat atxilotu dute Bilbon • 16

mundua

Sudan

Autodeterminazio eskubidea onartu dio Gobernuak hegoaldeko lurraldeari • 28

kirola

futbola

Reala-Numancia, Espanyol-Alaves eta Rayo-Athletic gaurko jardunaldian • 32-34